



ZERBITZU PUBLIKOAK ESKAINI ETA JARDUERA ADMINISTRATIBOAK BURUTZEAGATIK ORDAINDU BEHARREKO TASA ARAUTZEN DUEN ORDENANTZA

Goikoportala 3. 48270 Markina-Xemein. IFK P4807100E. Tlf.: 94 616 74 54 www.markina-xemein.eus udala@markina-xemein.eus

AURKIBIDEA

I. IDAZPURUA: XEDAPEN OROKORRAK

II. IDAZPURUA: ZERGA-GAIA

III. IDAZPURUA: SUBJEKTU PASIBOA

IV. IDAZPURUA: SALBUESPENAK, MURRIZKETAK ETA HOBARIAK

V. IDAZPURUA: ZERGA-OINARRIA

VI. IDAZPURUA: ZERGA-KUOTA

VII. IDAZPURUA: SORTZAPENA ETA ZERGALDIA

VIII. IDAZPURUA: LIKIDAZIOA ETA ORDAINKETA

IX. IDAZPURUA: TASEN KUDEAKETA

AZKEN XEDAPENA

ERANSKINAK

- **1. Epigrafea:** etxez etxeko bilketa.
- **2. Epigrafea:** estolderia zerbitzuak.
- **3. Epigrafea:** agiriak ematea.
- **4. Epigrafea:** establezimenduak irekitzeko lizentziak.
- **5. Epigrafea:** obrak eta hirigintza jarduketak.
- **6. Epigrafea:** eraikinen ikuskapen teknikoa.
- **7. Epigrafea:** kiroldegia.
- **8. Epigrafea:** futbol zelaia.



ZERBITZU PUBLIKOAK ESKAINI ETA JARDUERA ADMINISTRATIBOAK BURUTZEAGATIK ORDAINDU BEHARREKO TASA ARAUTZEN DUEN ORDENANTZA

Goikoportala 3. 48270 Markina-Xemein. IFK P4807100E. Tlf.: 94 616 74 54 www.markina-xemein.eus udala@markina-xemein.eus

I. IDAZPURUA XEDAPEN OROKORRAK

1. artikulua.

Udal honek, Lurraldeko Toki Ogasunak arautzen dituen Foru Arauari jarraiki, Eranskinean zehazten diren tasak ezarri eta exijitzen ditu zerbitzu publikoak eskaini eta jarduerak burutzeagatik. Ordenantza honetan adierazten diren arauen arabera ezarri eta exijitzen dira tasa horiek, eta haren barruan geratzen dira jasota.

2. artikulua.

Ordenantza hau Udallerriaren eremu osoan aplikatuko da.

II. IDAZPURUA ZERGA-GAIA

3. artikulua.

Udalaren aldetik zerbitzu bat eskaintzeak edo jarduera bat burutzeak eratzten du zerga-gaia, dela eskatua izan delako, dela partikularren egintza edo hutsegiteen ondorioz zeharka probokatu delako.

III. IDAZPURUA SUBJEKTU PASIBOA

4. artikulua.

1. Honako hauek izango dira, zergadun bezala, subjektu pasiboak: pertsona fisikoak zein juridikoak, eta Lurralde Historikoko Zergen Foru Arau Orokorrak 33. artikuluan aipatzen dituen entitateak, zerbitzu edo jarduerak eskatzen dituztenean edo haien onura edo eragina jasotzen dutenean.

2. Zergadunaren ordezkotzat hartuko dira:

- a) Etxebizitza edo lokalen okupatzaileei onura edo eragina dakarkieten zerbitzu edo jarduerengatik ezarritako tasetan: higiezin horien jabeak. Horiek, hala dagokienean, onuradun desberdinei jasanarazi ahal izango dizkiete kuotak.
- b) Suhiltzaile zerbitzuengatik, aurrien prebentzioagatik, eraikuntza eta eraipen zerbitzuengatik, salbamenduengatik eta, oro har, pertsona eta ondasunak babesteko zerbitzuengatik ezarritako tasetan, zerbitzuaren mantentzea barne, arriskuaren entitate edo sozietate aseguratzaileak.
- c) Lurzoruari eta hiri antolaketari buruzko araudian jasotako hirigintza lizentziak emateagatik ezarritako tasetan, obren eraikitzaileak eta kontratistak.

5. artikulua.

Tasak ordaintzera behartuta daude:



ZERBITZU PUBLIKOAK ESKAINI ETA JARDUERA ADMINISTRATIBOAK BURUTZEAGATIK ORDAINDU BEHARREKO TASA ARAUTZEN DUEN ORDENANTZA

Goikoportala 3. 48270 Markina-Xemein. IFK P4807100E. Tlf.: 94 616 74 54 www.markina-xemein.eus udala@markina-xemein.eus

- a) Partikularren eskariz egindako zerbitzu edo jardueren kasuan, eskaera egin dutenak.
- b) Partikularrek eskatu ez baina, horien egintza edo hutsegiteengatik, derrigorrezkoak gertatu diren zerbitzu edo jardueren kasuan, egintza edo hutsegite horiek leporagarri dituztenak.

6. artikulua.

Ordenantza honetatik eratoritzen diren zerga zorretan, subjektu pasiboarekin batera, tarifak aplikatzeko arauetan aipatzen diren pertsonak ere erantzungo dute.

IV. IDAZPURUA SALBUESPENAK, MURRIZKETAK ETA HOBARIAK

7. artikulua.

Salbuespenak edo bestelako onura fiskalak aplikagarri diren xedapen orokorretan ezarritakoaren arabera emango dira.

V. IDAZPURUA ZERGA-OINARRIA

8. artikulua.

Oinarri ezargarria zerbitzua gauzatzen den unitate bakoitzak eratzten du, Eranskinean jasotakoaren arabera.

VI. IDAZPURUA ZERGA-KUOTA

9. artikulua.

Zerga kuota tarifa bat, espresuki erabakitako kopuru finko bat edo, bestela, bi prozedurak batera erabiliz finkatuko da, Eranskinean ezarritakoaren arabera.

VII. IDAZPURUA SORTZAPENA ETA ZERGALDIA

10. artikulua.

Zerbitzua edo jarduera egiten denean sortzen da tasa.



ZERBITZU PUBLIKOAK ESKAINI ETA JARDUERA ADMINISTRATIBOAK BURUTZEAGATIK ORDAINDU BEHARREKO TASA ARAUTZEN DUEN ORDENANTZA

Goikoportala 3. 48270 Markina-Xemein. IFK P4807100E. Tlf.: 94 616 74 54 www.markina-xemein.eus udala@markina-xemein.eus

VIII. IDAZPURUA LIKIDAZIOA ETA ORDAINKETA

11. artikulua.

Udalak kontzeptu bakoitzaren likidazioa egingo du, eta likidaturiko kopurua eskudirutan ordainduko da Eranskinak exakzio bakoitzerako ezartzen dituen arau partikularrei jarraituz.

IX. IDAZPURUA TASEN KUDEAKETA

12. artikulua.

Ordenantza honetan arautzen diren tasak likidatu, bildu eta ikuskatzeari dagokion guztian, eta, halaber, zerga urrapenak kalifikatu eta kasu bakoitzean dagozkien zigorrak ezartzerakoan, Lurralde Historikoko Zergen Foru Arau Orokorrean jasotakoa aplikatuko da.

AZKEN XEDAPENA

Ordenantza hau, eta bere Eranskina, aldatu edo indargabetzea erabakitzen ez den artean jarraituko du indarrean.



ZERBITZU PUBLIKOAK ESKAINI ETA JARDUERA ADMINISTRATIBOAK BURUTZEAGATIK ORDAINDU BEHARREKO TASA ARAUTZEN DUEN ORDENANTZA

Goikoportala 3. 48270 Markina-Xemein. IFK P4807100E. Tlf.: 94 616 74 54 www.markina-xemein.eus udala@markina-xemein.eus

ERASKINAK

1. EPIGRAFEA: HIRI HONDAKIN SOLIDOAK (ZABORRAK) BATU ETA TRATATZEKO ZERBITZUAREN TASA ARAUTZEN DUEN ORDENANTZA

Etxebizitzak eta komentuak	101,59€
Auzoetako etxebizitzak (astean hiru biderrez biltzen den lekuetan)	65,20€
1. mailako taberna eta kafetegiak, hotelak eta ostatuak	552,84€
2. mailako taberna eta kafetegiak	393,72€
Auzoetako taberna eta jatetxeak (zamar-bilketa astean hiru biderrez)	185,64€
Merkataritzako lokalak (Herriko arraindegiak tasaren %50eko hobaria izango duten euren arrain-hondakinak Ondarroako portuan propio jarritako zaborrontzira eramaten badute).	182,62€
Merkataritzako lokalak nahiz eta jarduerarik ez izan ur hornidura dutenak	65,20€
200 m2 arteko supermerkatuak	365,57€
201 – 300 m2 arteko supermerkatuak	552,84€
301 m2tik gorako supermerkatuak	1.449,22€
5 behargin arteko industriak eta lantegiak	274,46€
Id. 6 – 10 behargin bitartekoak	416,65€
Id. 11 – 25 behargin bitartekoak	552,84€
Id. 26 – 50 behargin bitartekoak	821,30€
Id. 51 – 100 behargin bitartekoak	1.238,69€
Osasun Etxea	203,31€
500 ikasle bitarteko ikastetxeak	1.207,68
500 – 1000 ikasle bitarteko ikastetxeak	2.415,36€
300 bazkalkide arteko eskola-jantokiak	290,29€
300 – 500 bazkalkide arteko eskola-jantokiak	597,11€
Zaharren egoitza	362,71€
Hondakin organikoen edukiontziko txartelaren kopia ateratzeko tramitazioa	2,00€



ZERBITZU PUBLIKOAK ESKAINI ETA JARDUERA ADMINISTRATIBOAK BURUTZEAGATIK ORDAINDU BEHARREKO TASA ARAUTZEN DUEN ORDENANTZA

Goikoportala 3. 48270 Markina-Xemein. IFK P4807100E. Tlf.: 94 616 74 54 www.markina-xemein.eus udala@markina-xemein.eus

2. EPIGRAFEA: ESTOLDERIA ZERBITZUAREN TASA ARAUTZEN DUEN ORDENANTZA

Estolderiaren urteko tasa	17,14€
Etxebizitzan konexio berria	79,25€
Industrian konexio berria	167,10€

3. EPIGRAFEA: AGIRIAK EMATEKO TASA ARAUTZEN DUEN ORDENANTZA

Agiriak konpultsatzea	3,20€
10 orritik gora, orri bakoitzeko gehitu	0,15€



ZERBITZU PUBLIKOAK ESKAINI ETA JARDUERA ADMINISTRATIBOAK BURUTZEAGATIK ORDAINDU BEHARREKO TASA ARAUTZEN DUEN ORDENANTZA

Goikoportala 3. 48270 Markina-Xemein. IFK P4807100E. Tlf.: 94 616 74 54 www.markina-xemein.eus udala@markina-xemein.eus

4. EPIGRAFEA: AURRETIKO JAKINARAZPENA EDO ERANTZUNKIZUNPEKO AITORPENA ESKATZEN DUTEN ESTABLEZIMENDUAK IREKI ONDOREN UDALAK KONTROL- JARDUERA EGITEAGATIK ORDAINDU BEHARREKO TASA ARAUTZEN DUEN ORDENANTZA FISKALA

1. artikulua.- Xedea.

Ordenantza honetan araututako ordainarazpenaren xedea zera izango da: kontrolerako jarduera tekniko eta administratiboak burutzeagatik udal jarduera, establezimenduak irekitzeko baimen-eskaera alde batera utzi eta horren ordean erantzukizunpeko aitorpena edo aurretiko jakinarazpena eskatzen den kasuetan.

2.artikulua.- Egitate zergapegarria.

Tasaren zerga-oinarria honek osatzen du: subjektu pasiboak alde aurretik jakinarazitako jardueraren hasiera eta adierazitako baldintzak konprobatzeko eta kontrolatzeko udal jarduera tekniko eta administratiboa. Horren helburua zera da: adierazitako jarduerak hirigintza-arauak, antolamendu urbanistikoa eta tramitazio hori beharrezkoa duten edo hautazkoa duten jardueretara bideratutako eraikin, lokal, instalazio eta espazio libreei aplikatu ahal zaizkien udal ordenantzak betetzen dituela egiaztatzea.

Gainera, handitzeak, erabilera-aldaketak eta beste jarduera batzuen ezarpenak ere kontuan hartuko dira, betiere jarduera berria ez bada. Jarduera Ekonomikoen Sailkapen Nazionalaren kode beraren barruan, eta ez bada jarduera desberdinentzat hartzen.

Udal jarduera hori subjektu pasiboaren aurretiko komunikazioaren ondorioz sortu daiteke, edo ikuskaritza-jardueraren ondorioz, baldin eta jakinarazi ez diren, edo egindako jakinarazpenaren barruan sartzen ez diren jarduerak daudela egiaztatzen bada.

3. artikulua.- Sortzapena.

Tasa sortzen da eta zerga ordaintzeko beharrezana sortzen da, egitate zergapegarria osatzen duen udal jarduera hasten denean. Hala, ulertuko da jarduera hasi dela aurretiko komunikazioaren idazkia edo erantzukizunpeko aitorpena aurkeztu den datan.

Era berean, tasa sortuko da jarduera edo instalazioa aurretiko jakinarazpen edo erantzukizunpeko aitorpenik aurkeztu gabe garatzen denean, edo garatutako jarduera ez denean jakinarazitakoa, eta Udalak ikuskaritza-jardueren bidez egiaztatzen duenean garatutako jarduera pribatu hori.

Zerga ordaintzeko betebeharra modu independentean sortzen da, aurretiko jakinarazpena eta erantzukizunpeko aitorpenaren mende dagoen jarduera burutzen den lokal bakoitzerako (fabrikak, tailerrak, bulegoak, dendak, biltegiak eta edozein motatako eremuak).

4. artikulua.- Likidazioa.

Tasa autolikidazio erregimenean eskatuko da, jardueraren hasieran aurretiko jakinarazpena edo erantzukizunpeko aitorpena aurkeztu denean. Interesdunek tasa ordaintzeko datuak zehaztu beharko dituzte.



ZERBITZU PUBLIKOAK ESKAINI ETA JARDUERA ADMINISTRATIBOAK BURUTZEAGATIK ORDAINDU BEHARREKO TASA ARAUTZEN DUEN ORDENANTZA

Goikoportala 3. 48270 Markina-Xemein. IFK P4807100E. Tlf.: 94 616 74 54 www.markina-xemein.eus udala@markina-xemein.eus

Aurrekoa ez beste kasu batzuetan, tasa Udalak likidatu eta subjektu pasiboari jakinaraziko dio, eta borondatezko epean abonatu beharko da, Bizkaiko Lurralde Historikoan dagoen Zerga Bilketarako Araudian ezarritako epeetan.

Autolikidazioa Udal zerbitzuek konprobatu beharko dute, likidazio osagarria limitatuz, beharrezkoa balitz.

HASTEKO BAIMENAK		
1	10 beharginetik beherako lantegiak	288,05€
2	11-100 behargin bitarteko lantegiak	421,26€
3	101 beharginetik gorako lantegiak	568,14€
4	Taxi zerbitzua	355,73€

MATERIALA ALDATZEA		
5	Taxi zerbitzua	114,95€

ESKUALDATZEAK		
6	Merkataritzako establezimenduak	162,28€
7	Industria establezimenduak	288,05€



ZERBITZU PUBLIKOAK ESKAINI ETA JARDUERA ADMINISTRATIBOAK BURUTZEAGATIK ORDAINDU BEHARREKO TASA ARAUTZEN DUEN ORDENANTZA

Goikoportala 3. 48270 Markina-Xemein. IFK P4807100E. Tlf.: 94 616 74 54 www.markina-xemein.eus udala@markina-xemein.eus

5. EPIGRAFEA: AURRETIKO JAKINARAZPENA EDO ERANTZUKIZUNPEKO AITORPENA ESKATZEN DUTEN OBRAK EDO HIRIGINTZAKO JARDUERAK DIRELA ETA ZERBITZUAK EMAN ONDOREN UDALAK KONTROL JARDUERA EGITEAGATIK ORDAINDU BEHARREKO TASA ARAUTZEN DUEN ORDENANTZA FISKALA

1. artikulua.- Egitate zergapegarria.

Ordenantza honetan araututako ordainarazpenaren xedea zera izango da: kontrolerako jarduera tekniko eta administratiboak burutzeagatiko udal jarduera, hirigintza-baimena alde batera utzi eta horren ordeztan erantzukizunpeko aitorpena edo aurretiko jakinarazpena eskatzen den kasuetan.

Udal jarduera hori subjektu pasiboaren aurretiko komunikazioaren ondorioz sortu daiteke, edo ikuskaritza-jardueraren ondorioz, baldin eta jakinarazi ez diren, edo egindako jakinarazpenaren barruan sartzen ez diren obrak edo hirigintza arloko jarduerak daudela egiaztatzen bada.

Adibide bezala, ordainarazi egingo dira hauen inguruan emandako zerbitzu tekniko edo administratiboak:

1. Jarduera komertziala burutzeko, lokalak egokitzeko egin beharreko obrak, Eraikuntzaren Antolamenduari buruzko azaroaren 5eko 38/1999 Legearen arabera obra-proiekturik idatzi behar ez dutenak.

Adibide bezala, hauek aipatzen dira:

1. Etxebizitzaren konponketa, atariak (proiektu teknikorik gabe), eskailerak, leihoak aldatzea, e.a.
2. Terraza edo barruko patioak birgaitzea (zolatadura eta iragazgaiztea).
3. Asfaltatu edota margotzea edo garajeetako ateak aldatzea.
4. Jarduera aurretiko jakinarazpena behar duten jarduerak eta instalazioak garatzen diren lokalen konponketak (2/2006 Legea, B Atala, II. Eranskina), horren irekiera edota funtzionamenduari dagokion dokumentazioa aurkezten dutenak.
5. Etxebizitza eta atarietan instalazio elektrikoak, iturgintzakoak, gasa eta saneamendua berriztatzea.
6. Saneamendu eta ur sare pribatuetako konponketa urgarriak, matxurak, hausturak, e.a. egon direlako.
7. Teilatu eta fatxadetako konponketa urgarriak (teilak edo plaketak jaustea, zarpiatzeak, estaldurak eta erretenak, e.a.....).
8. Beheko solairuko lokal edo etxebizitzetako kanpoko aspektuaren konponketa – obrak, ez badute fatxadetako elementu komunak aldaketak inplikatu (toldoak, errejak, pintura, arotzeria bikoitza, pertsianak eta antzekoak).
9. Lonjetan osasungarritasuna eta apaingarriak hobetzeko lanak (instalazio elektrikoak, uraren hartunea, margotzea, zolatadura, barruko eraisketak, e.a.....).
10. Jakinarazitako jardueren luzapenak.



ZERBITZU PUBLIKOAK ESKAINI ETA JARDUERA ADMINISTRATIBOAK BURUTZEAGATIK ORDAINDU BEHARREKO TASA ARAUTZEN DUEN ORDENANTZA

Goikoportala 3. 48270 Markina-Xemein. IFK P4807100E. Tlf.: 94 616 74 54 www.markina-xemein.eus udala@markina-xemein.eus

11. Hirigintza arloko baimenen luzapenak. Eskatzen den baimen horren luzapena lortzea konprobatuko da.
12. Legearen arabera, baimenaren ordeztu erantzukizunpeko aitorpena edo aurretiko jakinarazpena ezartzen den beste edozein obra.
13. Beste batzuk, e.a.

2. artikulua.- Sortzapena.

Tasa sortzen da eta zerga ordaintzeko beharrezana ere sortzen da, egitate zergapegarria osatzen duen udal-jarduera hasten denean. Horrela, ulertuko da jarduera hasi dela aurretiko komunikazioaren idazkia edo erantzukizunpeko aitorpena aurkeztu den datan.

Era berean, tasa sortuko da obra edo hirigintza arloko jarduera aurretiko jakinarazpen edo erantzukizunpeko aitorpenik aurkeztu gabe garatzen denean, edo garatutako obra edo hirigintza arloko jarduera ez denean jakinarazitakoa, eta Udalak ikuskaritza-jardueren bidez egiaztatzen duenean garatutako obra edo hirigintza-jarduera hori.

Zerga ordaintzeko beharrezana lokal bakoitzerako sortzen da modu independentean, aurretiko jakinarazpena edo erantzukizunpeko aitorpenaren mende dauden obra edo hirigintza-jarduerak burutzen direnean.

3. artikulua.- Likidazioa.

Tasa autolikidazio erregimenean eskatuko da, obraren edo hirigintza-jardueraren hasieran aurretiko jakinarazpena edo erantzukizunpeko aitorpena aurkeztu denean. Interesdunek tasa ordaintzeko datuak zehaztu beharko dituzte.

Aurrekoa ez beste kasu batzuetan, tasa Udalak likidatuko du, eta subjektu pasiboari jakinaraziko dio. Hori hautazko epean abonatu beharko da, Bizkaiko Lurralde Historikoan dagoen Zerga Bilketarako Araudian ezarritako epeetan.

Kasu bietan erantsiko da aurrekontu zehatza, partidaka, materialak, eskulana eta makinak barne.

Autolikidazioa Udal Zerbitzuek konprobatu beharko dute, likidazio osagarria emitituz, beharrezkoa balitz.

1. Xehetasunezko azterlanak eta plan partzialen eta barruko eraberritze planen tramitazioa.

Eraikitako m2ko	0,22€
Gutxieneko tasa	85,99€

2. Hirigintzako lur-zatiketen tramitazioak, lur-zatiketa eta bereizketak (segregazioak)

250 m2 arteko azalerakoak	1,14€
---------------------------	-------



ZERBITZU PUBLIKOAK ESKAINI ETA JARDUERA ADMINISTRATIBOAK BURUTZEAGATIK ORDAINDU BEHARREKO TASA ARAUTZEN DUEN ORDENANTZA

Goikoportala 3. 48270 Markina-Xemein. IFK P4807100E. Tlf.: 94 616 74 54 www.markina-xemein.eus udala@markina-xemein.eus

Hortik gorako m2 bakoitzeko (m2ko)	0,90€
3. Lurzoru urbanizaezineko sailen tramitazioa eta banaketa	
Hiri-lur izaerakoak	85,99€
Landa-lur izaerakoak	43,04€
4. Alde batek eskatuta egindako hondamen-tramitazioa	766,43€
5. Lehenengoz erabiltzeko baimenak	
Etxebizitzak	70,94€
Industria-pabiloiak:	
* Eraikitako m2ko	0,77 €/m2
* Gutxieneko tasa	204,00€
6. Denda, lokal eta bulegoen behin betiko ikuskapena	
Eraikitako m2ko	2,00€/m2
Gutxieneko tasa	102,00€
7. Hirigintzako txostenak	70,94€
8. Hirigintzako kalifikazio-ziurtagiriak	70,94€
9. Diskete bidezko dokumentazio grafikoa	70,94€
10. Obra baimena ematerakoan kobratzen den tramitazioa tasa	%1,00

ZERBITZU PUBLIKOAK ESKAINI ETA JARDUERA ADMINISTRATIBOAK BURUTZEAGATIK ORDAINDU BEHARREKO TASA ARAUTZEN DUEN ORDENANTZA

Goikoportala 3. 48270 Markina-Xemein. IFK P4807100E. Tlf.: 94 616 74 54 www.markina-xemein.eus udala@markina-xemein.eus

6. EPIGRAFEA: ERAIKUNTZEN GAINENKO INSPEKZIO KONTROLA

Ordenantza honek hauxe du helburu: herriko eraikinen ikuskapen teknikoaren ondoriozko buruzko dokumentazioa aurkezteko, aurkeztu ondoren egiaztatzeko eta Eusko Jaurlaritzako organo eskudunei bidaltzeko errekerimenduaren inguruan Udalak egin beharreko jarduera tekniko eta administratiboak.

I. IDAZPURUA **ZERGAPEKO EGITATEA**

Tasa honen zergapeko egitate Markina-Xemeinen kokatutako eraikinen ikuskapen teknikoaren jarraipen eta kudeaketa arloko udal izapide tekniko eta administratiboak dira, 241/2012 Dekretuak, azaroaren 21ekoak, Euskal Autonomia Erkidegoko eraikinen ikuskapen teknikoa arautzen duenak, xedatutakoaren arabera.

Udalak idatzi bat bidaliko die dekretuan xedatutako urtean urteko plangintzan sartutako eraikinen jabeei. Alegia, plangintza horren arabera eraikinaren ikuskapen teknikoaren agiria aurkeztea dagokienei. Ondoren, aurkeztutako dokumentazioa egiaztatuko du eta txostenean jasotako zehaztapenak betetzen diren ala ez, eta behar den dokumentazio guztia bidaliko dio arlo honetan eskumena duen Eusko Jaurlaritzako sailari.

II. IDAZPURUA **SORTZAPENA**

Tasaren sortzapena, eta berau ordaindu beharra, zergapeko egitate den udal jarduera hasterakoan gertatuko da. Eta, ondorio horietarako, eraikinaren ikuskapen teknikoaren inguruko dokumentazioa zein egunetan aurkezten den, horixe egun hori hartuko da jardueraren hasieratzat.

III. IDAZPURUA **LIKIDAZIOA**

Eraikinaren ikuskapen teknikoaren dokumentazioa aurkeztearekin batera, interesdunak dagokion tasa ordaindu beharko du. Ikuskapenaren dokumentazioa sasoiz aurkeztu ezean, Udalak dagokion tasa igorriko dio interesdunari, 241/2012 Dekretu arautzailean zehaztutako gainerako jardueren kalterik gabe.

IV. IDAZPURUA **SUBJEKTU PASIBOA**

Eraikineko jabe guztiak dira subjektu pasibo, modu solidarioan.



ZERBITZU PUBLIKOAK ESKAINI ETA JARDUERA ADMINISTRATIBOAK BURUTZEAGATIK ORDAINDU BEHARREKO TASA ARAUTZEN DUEN ORDENANTZA

Goikoportala 3. 48270 Markina-Xemein. IFK P4807100E. Tlf.: 94 616 74 54 www.markina-xemein.eus udala@markina-xemein.eus

V. IDAZPURUA ZERGA-KUOTA

Tasa honen kuotan hauxe sartzen da: udal zerbitzuek tramitazio osoan (errekerimendua, egiaztapena, ondorengo jarduerak eta dokumentazioa dagokien organoei bidaltzea) eskainitako denbora, zerbitzu tekniko eta administratiboen hiru lanordutan baloratzen dena:

100€

Dokumentazioa sasoiz aurkeztu ez edo ikuskapen txostenaren ondoriozko zehaztasunak bete ezean, hasierakoaren % 50ean zenbatutako tasa bat igorriko da Udalak izapideren bat betetzeko eskatu behar duen bakoitzean.

AZKEN XEDAPENA

Tasa hau, behin betiko onartu izanaren iragarkia Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratutako egunean sartuko da indarrean, eta indarrean jarraituko du harik eta Udalak aldaketaren bat onartu arte.



ZERBITZU PUBLIKOAK ESKAINI ETA JARDUERA ADMINISTRATIBOAK BURUTZEAGATIK ORDAINDU BEHARREKO TASA ARAUTZEN DUEN ORDENANTZA

Goikoportala 3. 48270 Markina-Xemein. IFK P4807100E. Tlf.: 94 616 74 54 www.markina-xemein.eus udala@markina-xemein.eus

7. EPIGRAFEA: BARROETAKO FUTBOL ZELAIA ERABILTZEAGATIK ORDAINDU BEHARREKO TASEN ORDENANTZA ARAUTZAILEA

I. IDAZPURUA **ZERGA-GAIA**

Udalaren aldetik zerbitzu bat eskaintzeak edo jarduera bat burutzeak eraten du zerga-gaia, dela eskatua izan delako, dela partikularren egintza edo hutsegiteen ondorioz zeharka probokatu delako.

II. IDAZPURUA **SORTZAPENA**

Aipatutako tasa sortu egiten da eta zergapeko egitatea osatzen duen udal jarduerari hasiera ematen zaionean, zerga ordaintzeko betebeharra jaiotzen da. Hori horrela, jarduerari hasiera eman zaiola ulertuko da, Barroetako futbol zelaiaren instalazioak erabiltze direnean.

III. IDAZPURUA **LIKIDAZIOA**

Barroetako futbol zelaia erabiltzeko eskaera egiten denean, tasa autolikidazio erregimenean eskatuko da.

IV. IDAZPURUA **SUBJEKTU PASIBOA**

Tasa honen subjektu pasiboak Barroetako futbol zelaia erabiltzen duten guztiak dira.

V. IDAZPURUA **ZERGA-KUOTA**

Kuota zergaduna udalak jarriko du eta tarifa finkoa izango da. Barroetako futbol zelaiko instalazioak erabiltzearen tasak:

Futbol zelaia	10,00€
Futbol zelaia + ura edo argia	30,00€
Futbol zelaia + ura + argia	50,00€



ZERBITZU PUBLIKOAK ESKAINI ETA JARDUERA ADMINISTRATIBOAK BURUTZEAGATIK ORDAINDU BEHARREKO TASA ARAUTZEN DUEN ORDENANTZA

Goikoportala 3. 48270 Markina-Xemein. IFK P4807100E. Tlf.: 94 616 74 54 www.markina-xemein.eus udala@markina-xemein.eus

AZKEN XEDAPENA

Aipatutako tasa hau, indarrean jarriko da, iragarkiaren behin betiko onespena Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratzen den egunean bertan eta indarrean egongo da, udaletxeak aldaketaren bat onartzen ez duen arte.

ZERBITZU PUBLIKOAK ESKAINI ETA JARDUERA ADMINISTRATIBOAK BURUTZEAGATIK ORDAINDU BEHARREKO TASA ARAUTZEN DUEN ORDENANTZA

Goikoportala 3. 48270 Markina-Xemein. IFK P4807100E. Tlf.: 94 616 74 54 www.markina-xemein.eus udala@markina-xemein.eus

8. EPIGRAFEA: UDAL KIROLDEGIA

2019 urteko tarifak

ABONOKAK	HILEKOA		HIRUHILABETEKOA		URTEKOA	
	Erroldatua	Ez Erroldatua	Erroldatua	Ez Erroldatua	Erroldatua	Ez Erroldatua
Familiakoa	-	-	44,97€	60,69€	178,24€	240,46€
Familiakoa (langabetuak, jubilatuak eta familia ugariak)	-	-	22,48€	-	89,12€	-
Banakakoa	11,19€	15,15€	25,09€	33,84€	99,39€	134,09€
Banakakoa (langabetuak eta jubilatuak)	-	-	12,55€	16,92€	49,70€	67,03€
Banakakoa (%33tik gorako elbarritasuna)	-	-	-	16,92€	-	67,03€

IGERIKETA	HILEKOA		HIRUHILABETEKOA		TARIFA FINKOA	
	Bazkide	Ez Bazkide	Bazkide	Ez Bazkide	Bazkide / Hil.	Ez bazkide / Hil.
4 - 14 urte bitarteko ikastaroak	-	-	48,66€	69,07€	55,67€	68,59€
umeentzako udako ikastaroa	34,33€	52,65€	-	-	-	-
helduentzako ikastaroak	-	-	48,66€	69,07€	-	-
2-3 urteko umeen jarduerak (30 min/astero)	32,91€	42,46€	-	-	-	-
4-14 urte bitartekoak (1 ordu astero)	-	-	32,45€	46,06€	-	-

SARRERAK ERABILERAK	bazkiadea (gimnasio)	ez bazkiadea
Umeen sarrera	-	3,75€
Helduen sarrera	3,65€	5,62€
Pistako sarrera	-	2,50€
Sauna	3,58€	5,50€

EKINTZAK	HILEKOA		HIRUHILABETEKOA		URTEKOA	
	Bazkideak	Ez Bazk.	Bazkideak	Ez Bazk.	Bazkideak	Ez Bazk.
GIMNASIOA	22,37€	32,65€	60,42€	88,18€	220,24€	321,38€
GIM 33% gorako elbarritasuna	11,19	16,34€	30,21€	44,09€	110,12€	160,69€

EKINTZAK		
AEROBIC JUNIOR	15,21€	18,80€
Atxondo Box 2 ordu	32,58€	42,04€
Aerobic 1 ordu	25,36€	31,34€
Aerobic 2 ordu + gimnasioa	35,88€	48,96€
Pilates 2 ordu	32,91€	42,46€
Pilates 2 ordu + gimnasioa	48,42€	60,26€
SPINNING 1H	19,75€	25,47€
Spinning Ordu 2	32,58€	42,04€
Spinning 3 ordu	44,52€	55,15€
Mantenimendurako gimn.	32,58€	42,04€
3. adina - URA	16,46€	21,24€
3. adineko gimnasia	32,58€	42,04€
Hipopresiboak	19,55€	25,22€
Aquagym	32,58€	42,04€

Fama Dance	32,91€	42,46€
Txiki Ritmo	32,91€	42,46€
GAP Ordu 2	32,91€	42,46€
Jarduerak Anitza	32,91€	42,46€
PEB (bularra, bizkarra, besoak) Ordu 2	32,91€	42,46€
Aerobox Ordu 2	32,91€	42,46€
Abdominalak 2 egun 30 min	16,46 €	21,24 €
Stretching	16,46 €	21,24 €
Zoomba	32,91€	42,46€

ROKODROMOA	bazkide	ez bazkide
Umeentzako jarduerak		
Umeen sarrera	-	2,09€
Umeentzako 10eko bonua	-	17,68€
hilabeteko bonua	-	15,02€
urteko bonua	-	73,20€
2h/asteko kurtsoa	25,11€	32,58€
Nagusientzako jarduerak		
Nagusien sarrera	-	3,66€
nagusientzako 10eko bonua	-	31,37€
hilabeteko bonua	-	26,15€
urteko bonua	-	104,58€
sarrera kurtsoa (rokodromorako bakarrik) sarrera	9,27€	11,19€
2h/asteko kurtsoa (rokodromorako) kurtsoa	25,36€	42,46€

BESTE EKINTZAK / ALOKAIURAK	Bazkide	Ez Bazkide
A MOTAKOA	3,65€	5,62€
B1 MOTAKOA	4,68€	7,61€
B2 MOTAKOA	2,33€	3,81€
C MOTAKOA (Arte martzialak)	6,31€	9,89€
Inbody	5,62€	5,56€
Personal trainer	36,60€	156,86€
Saunako bonua (10 saio, 6 hilabeteko epemuga)	25,97€	45,77€
Pilotalekuko ordua, argi gabe	5,62€	gehi bazkide ez denaren sarrera
Pilotalekuko ordua, argiarekin	6,87€	gehi bazkide ez denaren sarrera
Kantxako ordua, argi gabe	12,47€	gehi bazkide ez denaren sarrera
Kantxako ordua, argiarekin	15,59	gehi bazkide ez denaren sarrera

PADEL	bazkide	ez bazkide
ordu bat	2,60€	4,67€
1,5 ordu	4,14€	6,22€
2 ordu	6,22€	8,29€
PADEL IKASTAROKAK		
umeak	31,09€	43,53€
nagusiak	41,46	53,89€

UDAKO ORDUTEGIA
Astelehenetik-Barikura 08:30 - 21:30
Zapatua 08:30 - 13:00 eta 16:00 - 20:00 • Domeka 08:30 - 13:00
NEGUKO ORDUTEGIA
Astelehenetik-Barikura 08:00 - 21:30
Zapatua 08:30 - 13:00 eta 16:00 - 20:00 • Domeka 08:30 - 13:00
Uretatik irteko ordu erdi lehenago.



**ZERBITZU PUBLIKOAK ESKAINI ETA JARDUERA ADMINISTRATIBOAK
BURUTZEAGATIK ORDAINDU BEHARREKO TASA ARAUTZEN DUEN
ORDENANTZA**

Goikoportala 3. 48270 Markina-Xemein. IFK P4807100E. Tlf.: 94 616 74 54 www.markina-xemein.eus udala@markina-xemein.eus